

dantza, sagardoa eta bertsoak

Hernaniko Karabel auzoan kokaturiko karpa «agorturik» utzi ostean –iragan asteburuan bi kontzertu erraldoi egin ziren bertan Sagarrondotik 05 egitarauaren barne-, asteburu honetan sagardoaren kultura ardatz duen ekimen honek beste sagardoleku batera joko du: Astigarragara. Igande eguerditik aurrera Oialume dantzaleku «beteranora» bertararatuko direnek egun bitxi bat gozatu ahal izango dute, “Txootx!” izenburuko ikuskizuna bertan estreinatuko baita.

Jon Maia koreografo eta dantzari ezaguna sagardotegi bate-

an dantzariak, txistulariak, bertsolariak, abesbatza eta ikusleak batuko dituen jaialdi ikusgarriaren koordionazioaz arduratu da. Ereintza taldeko 25 dantzari, Astigarragako Aiztondo abesbatza eta Xabier Euskitze eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolariak

bertan izango dira, gastronomia eta kultura uztartuko dituen ekimena aurrera eramaten. 10 euroren truke, sagardotegian bazkaldu (120 lagunendako bazkaria prestatu dute) eta, ondoren, “Txootx!” ikuskizunaz gozatu ahal izango dute. ■

Astigarraga

- **Data:** Igandea 13. ■ **Tokia:** Oialume dantzalekua.
- **Ordua:** 12.00etatik aurrera. ■ **Sarrerak:** 10 euro.
- **Salmenta:** Hernani: Lete eta liburudendak, Aralar eta Oialume taberna. Astigarraga: Kizki taberna. Orereta: Arkaitza taberna. Donostia: Bilintx liburudenda.